

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Mendaraz Larrañaga

*Urretxu,
Gipuzkoa
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Urretxuko Iparragirre kalean jaioa 1929an, 4 senide ziren familian. Aita Antzuolakoa zuen, eta ama bergararra. Gerra ostean zegoen gosetea zela-eta, gaztaroa osaba-izeben etxeetan pasa zuen: Beasainen, Iturrazpe etxean; Elosuan, Lutxurdion; eta Antzuolan, Jauregin. Urretxuko eskola nazionalean ibili zen, eta geroago, udaletxeak jarritako eskolan. 12 urterekin mezalagun bidali zuten Getxoko Neguri auzoko komentura: han, egunean, 5 mezatako mezalagun-lana egiten zuen. Fraide izateko gogorik ez, eta atzera Urretxura itzuli zen. 13 urte zituela, Madaia lantegian hasi zen lanean; urte eta erdi egin zuen bertan; eta, horren ondoren, Orbegozo lantegian aritu zen. 1955.urtean, bere lantegia zabaldu zuen beste bi bazkiderekin batera; eta galdaragintza- eta txapisteria-lanak egiten zituzten bertan, Ema lantegian. 25 urte egin zituen han lanean; eta, gerora, bi semeekin poliesterra lantzen hasi zen. Erretiroa hartu zuenean sortu zitzaion danbolinak egiteko ideia; eta elkarrizketa egin zitzaion sasoian ere, horretan ziharduen. Azokatan eta etxeetan saltzen ditu danbolinak. Era berezia dauka danbolinak egiteko, motordunak egiten baititu; elkarrizketan prozesu hori azaltzen digu.

Zintak

URR-031

- **Proiektua:** Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2011-09-14

- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Kalean jaioa, baina baserriko bizimoduan ibilia

- **Erref:** URR-031/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:01:31. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gaztea zela, oso garai gogorra tokatu zitzaion. Denboraldi luzeak pasatzen zituen osaba-izeben baserrietan. Eskolara oso gutxi joaten zen. Baserrian, zer lan egitea tokatu zitzaion aipatzen du. Gustura aritzen zen bera baserriko lanetan.

2. Eskola nazionaleko oroitzapen txarrak

- **Erref:** URR-031/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:07:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Hainbat eskolatan ikasi zuen, eta 13 urterekin lanean hasi zen. Eskola nazionalean, diziplina gogorra zegoen. Eskola hura non zegoen azaltzen du, eta hara mutilak bakarrik joaten ziren; neskak mojen eskolara joaten ziren. Eskolara ez zuten uniformerik eramaten; eskolara sartzean, ilaran jartzen ziren, eta Cara al Sol abestu behar izaten zuten.</p>

3. Fraideekin gustura ikasi zuen

- **Erref:** URR-031/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:45. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Eskola nazionalean ibili ostean, Legazpin aritu zen ikasten Zumarragako fraideekin. Han gustura ibili zen. Maisuak erdaldunak ziren. Eskola garaiko zigorrak gogoan ditu. Eskolako ordutegia.

4. Negurin mezalagun ibili zen

- **Erref:** URR-031/008

- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Eskola nazionalean, fraideetan, eta Urretxuko eskolan ikasi zuen. Hura bukatutakoan, 12 urte zituela, Negurira eraman zuten meزالagun. Fraide sartzeko aukera eman ziotenean, baina, etxera itzultzea erabaki zuen Juanek. Negurin egon zen bitartean, zer egiten eta ikasten zuen azaltzen du.

5. Neguriko eskupekoak

- **Erref:** URR-031/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Negurin egon zen bitartean, eskupekoa ematen zioten. Oso jende aberatsa joaten zen mezara.

6. Neguritik itzuli eta Madaia lantegira

- **Erref:** URR-031/010
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:18:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Negurin urtebete egon zen meزالagun izateko ikasten. Etxera itzuli eta handik sei hilabetera hasi zen lanean Madaia lantegian. Han zer zeregin izaten zituen aipatzen du. Madaiaiko nagusiak eibartarrak ziren, baina Urretxun bizi ziren.

7. Madaiaiko lan-baldintzak

- **Erref:** URR-031/011
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

<p>Madaian lanean aritu zen bitartean, baldintza onak izaten zituen. Orduan 2,25 pezetako soldata izaten zuten; eta astean behin kobratzen zuten. Gerora, soldata pixkanaka igotzen joan zen.</p>

8. Urretxu inguruko lehengo tailerrak

- **Erref:** URR-031/012
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Madaia lantegian ibili zen garaian, beste hainbat tailer zeuden Urretxun; haien izenak eta langintzak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Zu Madaian zenbiltzan garai hartan hemen inguruan tailler asko zegon?
-Bai, tailler hamen Urkia, Rodriguez, Alkorta, Saralde, Aparicio, Rojo Zaldua, Zumarragan Orbegozo. Taillar asko.
-Gehienbat zertara dedikatzen ziren?
-Askok eiten zuen ba ballestak-eta kotxeendako. Orbegozok ba dana "accesorios de.." iturrindako ta, tuberik eta kodok eta gauza hoiek. Eta Apariciok berriz bonbak lenengo, solduxkako bonbak, bueno, gerrako bonbak. Eta gero ba accesorios de automoillanak, "llaves fijas, llaves estrellas" eta. Eta forja ere bai.

9. Orbegozon lanean aritu zenekoa

- **Erref:** URR-031/013
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:20:35. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Madaian urtebete lanean eman ostean, Orbegozoren lantegira joan zen Juan. 1955ean, bere kontura jarri zuen galdaragintza- eta txapisteria-tailerra. Orbegozoren fabrika asko hazi zen Juan bertan lanean aritu zen garaian. Orbegozon zer lan mota egiten zituzten aipatzen du. Garai hartan, emakume ugari egiten zuten lan fabrian. Fundizioko lana gogorra zen batzuentzat; baina beraien lana galdarategian zenez, ez zen hain gogorra izaten.

10. Ema tailerraren sorrera

- **Erref:** URR-031/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

1955ean, txapisteria-tailerra jarri zuen beste bi lagunekin batera: Ema tailerra. Beraien tailerreko lan-prozesuaz hitz egiten du.

11. Beraiek sortutako tailerreko materiala eta lana

- **Erref:** URR-031/015
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Tailerra 3 lagunen artean jarri zuten 1955ean. Tailerrean behar izaten zuten materialaz eta lan-prozesuaz hitz egiten du.

12. Tailerrean egiten zituzten hodiak

- **Erref:** URR-031/016
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:27:31. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak

Laburpena:

Tailerrean, hainbat neurritako hodiak egiten zituzten. Txapazkoak izaten ziren; materiala inguruko biltegietatik lortzen zuten. Txapa mozteko makineria berezia zeukaten.

13. Ema tailerraren sorrera eta lan-baldintzak

- **Erref:** URR-031/017
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Juanek beste bi lagunekin sortu zuen Ema tailerra 1955ean; han aritu zen lanean 25 urtean. Garai hartako lan-baldintzez hitz egiten du.

14. Poliesterrarekin lanean hasi zenekoa

- **Erref:** URR-031/018
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:

Juanek danbolinak egiten ditu; jarduera horretan nola hasi zen azaltzen du. 1980an, Ematik irten zenean, poliesterrarekin hasi zen lanean. Poliesterra lortzeko, nahasketa kimikoa nola egiten zuten azaltzen du.

15. Poliesterrarekin lanean

- **Erref:** URR-031/019
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Poliesterrarekin lan egiten zutenean, hainbat pieza egiteko erabiltzen zuten. Haiek egiteko moldeak egurrezkoak izaten ziren.

16. Danbolin motordunak egiteko ideia

- **Erref:** URR-031/020
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Danbolinak egiteko ideia nola bururatu zitzaion azaltzen du. Pixkanaka, ezaguna egin zen telebistarako grabatu zuen elkarrizketa bati esker.

Transkripzioa

-Eta poliesterrarekin hasi zinan hartan etorri zitzaizun burura danbolinaren kontu hau?

-Bai. Baiña jubilau barik neon eta esaten nun, ni ez noa oin hastea danboliñak eiten zeatik ez det eingo ezer. Eta ia jubilau nintzanen... Ni jubilau baiña lehenao semiak lana billau zuen eta jun zien. Nik bi semekin neon lanean, eta gero erek lana billau zuenen beste taillar batzutan, jun zien. Ta nik esan nien: bueno, zuek ikusi, gustoa baldin bazaete, nik ordun laga ingo det. Ta gustora zeren erak eta lagatzea noa. Lagatu nion ta jubilau nitzan. Ta jubilau nintzanen ordun ba astie neukan ta hasi nitzan poliki-poliki honek egiten, baiña lelengo hasi nitzan ba, lelengo urten eingo nitun hamar bat edo, hamar-hamabi. Ta etorri zien, este..., Aizpurua nola da hori, Gabiriko Euskal Telebistan dabilena.

-Andoni.

-Andoni. Andoni ta bestea Jpxe Mari Gabiri. Horrek etorri zitzatan behin eta.

Zer Juanito, tanboliñak egiten dituk eta. Bai. Ikusi ein bihar diau. Etorri zien. Hau grabau ein behar degu. Ta ordun bai, ordun taillarrea etorri zien eta ein gendun prozesu dana. Txapea zeon, kurbau, zulok ein ta danak ein giñutzen, eta kamarea hartzen. Eta gero gaztaiñak erre ein giñutzen. Ta gaztaiñak erreta zein ein zuen, Donostira eaman ta gero han jan zituen segitun Andonik eta danak. Eta telebista ematen. Eta ordun jenteak ikusi zunen lelengo aldiz haure hasi zien danak hoska, baiña nola harek ez zuen ein propagandaik, ezin zeikien propagandaik ein. Ta esan zuen... hemen danboliñak ikusi dezue eiten, ta zeñek iten due horrek ba? Urretxuko Juanito batek, Juanito dauke izena. Emango al diazu mesedez telefonue, ta. Halaxe eman zuen, batzuk etortzen zien telefonoz deitu. Baiña nik ez neukan emateko. Ez neukan eta. Urte hartan oso gaizki ibili nitzan. Ta gero hasi nitzan ba denboreakin poli-poliki eiten eta zoeze aurreratzen nun eta ordun ondo.

17. Danbolin motordunak egiteko prozesua

- **Erref:** URR-031/021
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:38:31. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Danbolinak egiteko materiala nola lortzen duen azaltzen du. Danbolina egiteko prozesua eta haren funtzionamendua pausoz pauso erakusten du.

18. Danbolin motordunen neurriak

- **Erref:** URR-031/022
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:44:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Bi neurritako danbolin motordunak egiten zituen lehen; baina orain neurri bakarra sortzen du.

19. Danbolinak egiteko teknikak eta denbora

- **Erref:** URR-031/026
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:47:51. **Bukatu:** 00:50:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Danbolin motordunak egiteko, 7-8 ordu inguru behar izaten dira. Horretarako, lehengo teknikak erabiltzen ditu. Lehendik ere, Juan oso gaztea zenean, bazen danbolinak egiten zituen gizon ugari herrian.

20. Juanen asmakizunak eta eskulanak

- **Erref:** URR-031/028
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:51:11. **Bukatu:** 00:52:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Juanek eskulan ugari egin izan ditu: lehengo farol zaharrak, besteak beste. Ideia nola bururatu zitzaion azaltzen du.

21. Antzinako farol modernoak

- **Erref:** URR-031/029
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:52:37. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Berak eskuz egindako farola erakusten du. Farol horiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Juanek berrikuntza bat egin dio, denbora gehiago iraun dezan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com